



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2026ko EKAINA - 274. zenbakia

Irailaren 19tik abenduaren 20ra izango da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa

Parte hartu zezaketen 50 bertsolariek eman dute izena Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan; ohi bezala, sarrerak salgai daude bertsosarrerak.eus atarian.

Urtaro bakarra baino ez da geratzen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa abiatzeko, eta jadanik xehetasunen berri eman du Bertsozale Elkarteak. Bilbon aurkeztu da Txapelketa, Kafe Antzokian, eta ordutik informazioa bertsozale.eus atarian dago eskuragai: parte hartzaileak, saioak, lekuak eta abarrak.

Udazkenean ekingo zaio saioz saio bidaia, baina harainoko bidea jarraikorra da; izan ere, herrialdeetako txapelketekin hasten den bidearen azken zatia izaten da lau urtez behingo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Jokatu dira Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Xilabako Bertsolari Txapelketak, eta iritsi da txapelketen zikloa azkenera.

Udazkeneko agenda Txapelketak hartuko du, eta ueña baliatu nahi du Elkarteak mapan kokatzeko bertsoa, kultura eta euskara. Izan ere, kultura eta euskara ito nahi duten honetan, hitza giltza eta euskara funtsa dituzten diziplinak arnasgune eta arnasaldi direla azpimarratu nahi da.

Sei bertsolari gehiago

2022koarekin alderatuta sei bertsolari gehiago ditu aurtengo txapelketak: Arabako bi, Nafarroako bi eta Xilabako bi. Hori horrela, saio bat gehituko zaio txapelketari, eta, lehenengo fasean, sei saioen orde zazpi izango dira. Zazpi saio horiek Euskal Herriko zazpi probintzian jokatu dira. Lehen faseko saioekin ez ezik, izendapenarekin ere jarri da azpimarra lurraldetasunaren zehar-lerroan; hemendik aurrera Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa izango baita.

Sarrerak, salgai

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako saio guztietako sarrerak salgai daude dagoeneko bertsosarrerak.eus atarian. Ohi den bezala, bazkideek abantailak izango dituzte sarrerak eskuratzeko orduan: ekainaren 17tik 24ra finaleko sarrera erreserbatuta izan dute, bonoak erosteko aukera izan dute eta saio guztietan sarrerak merkeago eskuratzeko aukera izango dute.

Ezinbestekoak dira borondatezko lanaren ekarpena eta proiektuko bazkideen sostengua. Horregatik, txapelketako sarreraren aukera baliatu eta bazkide izateko pausoa egitera animatu nahi dira bertsozaleak.



UNAX

AIZPURUA IBARGARAI

ARANTZA. 2026-06-13

EUSKAL HERRIKO
ESKOLARTEKOAREN
TXAPELDUNA

Doinua: Gaztalondo handian

Etxeparekoeri
muxu bat epela
Aramaiokoeri
ttinka itzela
Arantzako frontoia
Arantzako gela
berri bete duzue
nolako nibela!
Aitona horrela
hor nunbait zaudela
jakin zazu bela
zuretzat direla
haien txaloak eta
nire txapela.



Bertsozale Elkarteko kideak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren aurkezpenean. // XDZ



LEHENGO FASEA

Data	Herria	Lekua
Irailak 19, larunbata, 17:00	Hazparne	Mendeala Aretoa
Irailak 26, larunbata, 17:00	Altsasu	Burunda Pilotalekua
Irailak 27, igandea, 17:00	Lekeitio	Santi Brouard Pilotalekua
Urriak 3, larunbata, 17:00	Donapaleu	Airetik Pilotalekua
Urriak 4, igandea, 17:00	Tolosa	Usabal Kiroldegia
Urriak 10, larunbata, 17:00	Gotaine-Irabarne	Herriko gela
Urriak 11, igandea, 17:00	Agurain	Lezaio Kirolgunea

FINALAURREKOAK

Urriak 24, larunbata, 17:00	Larraun-Lekunberri	Plazaola Kirolgunea
Urriak 31, larunbata, 17:00	Eibar	Ipurua Kiroldegia
Azaroak 7, larunbata, 17:00	Gernika-Lumo	Jai Alai Pilotalekua
Azaroak 14, larunbata, 17:00	Miarritze	Jai Alai Pilotalekua
Azaroak 21, larunbata, 17:00	Donostia	Donostia Arena - Illunbe
Azaroak 28, larunbata, 17:00	Gasteiz	Mendizorrotza Kiroldegia
Abenduak 5, larunbata, 17:00	Bilbo	Bilbo Arena

FINALA

Abenduak 20, igandea, 11:00	Iruñea	Nafarroa Arena
-----------------------------	--------	----------------

Isileko lanaren egituraketa

Txapelketa ekainean aurkeztu bada ere, Bertsozale Elkartean hilabeteetan ari dira Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari begira lanean.

Antolakuntzaren erdigunean Txapelketako Talde Motorra dago. Sei lagunez osatutako taldea da, ikuspegi holistikoa duena; eta, ondorioz, Txapelketaren jarraipena egiten duena. Talde Motorraz gain, esparru jakinei begirako lanketa egiten dute beste hainbat talde daude:

- Bertsogintza taldea: 2022ko txapelketara begira sortu zen talde hau eta, batez ere, arlo artistikoari begiratzen dio, txapelketan oholtzaren baitan gertatzen denari: bertsolariei, gai-jartzaileei, epaileei... Bertsogintzako alorretan jartzen dute begia.
- Dokumentazio eta ikerketa taldea: Txapelketan gertatzen den guztia biltzeko eta zabalkunderako eskura uzteko ardura dute, baita ikerketak bideratzekoa ere. Gainera, nazioarteko harremanak ere kudeatzen dituzte.
- Ekoizpen taldea: Azpiegiturari dagozkion kudeaketan egin beharrekoak egikaritzen dituzte, baita arlo horretako erabakiak hartu ere. Adibidez, herriekin harremanak, hornitzaileak, segurtasun planak... egiten dituzte.
- Komunikazio taldea: Txapelketaren kontakizuna egiten du, hasi aurretik eta amaitu bitarte: txapelketaren irudia, sintonia eta eszenografia landu du, prentsaurreko zein aurkezpen ekitaldiak, komunikabideekin harremanak...
- Aipatutako talde guztiek etengabe lan egiten dute administrazioko lantaldearekin. Horien zeregin nagusia finantzak kudeatzea izaten da.

Aipatutako talde guztietan boluntarioak eta Bertsozale Elkarteko langileak eskuz esku ari dira lanean. Maiztasun handiz elkartzen dira eta udazkenerako kontu guztiak lotzen ari dira.

Lanaren fruituak laster ikusiko dira, eta lan horren gainean egingo dute bertsolariek beraiena, udazkena loratuz. Badator lau urtean behingo zita, badator bertsoaren lurrikara.



Aurkezpen prentsaurrekoa. //XDZ

Irailaren 12an izango da Bizkaiko Taldekakoaren finala, Zornotzan

Elkartearen egunarekin batera egingo da Taldekakoaren finala; bazkarirako txartelak uztailean jarriko dira salgai bertsosarrerak.eus atarian.

Aurrera doa Bizkaiko Taldekakoa 2026. Lehenengo fasea jokatu da eta finalurrekoak eta finala irailaren 12an izango dira Zornotzan, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen egunarekin batera.

Lehenengo fasean 14 taldek hartu dute parte. Bost saio jokatu dira ekainean, eta saio horietako irabazleak zuzenean sailkatu dira finalurrekoetara. Finalurrekoak osatzeko seigarren talde baten parte hartzea egokia izan daitekeela iritzita, Taldekakoaren antolakuntzak gonbidapen berezia emango dio talde bati.

Horrela, irailaren 12an goizean finalurreko bi jokatu dira eta bakoitzean hiru taldek parte hartuko dute. Bi finalurrekoetako irabazleek jokatu dute finala, egun berean, arratsaldean.

Bazkarirako txartelak uztailean ipiniko dira eskuragarri bertsosarrerak.eus atarian.



14 taldek parte hartu dute lehenengo fasean. //XDZ

Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarteko kideek bisita egin dute Xenpelar Dokumentazio Zentrora

Egitasmoaren aurkezpena egin ondoren dokumentazio gune desberdinak bisitatzeko aukera ere izan dute; bisita "emankorra" izan da.

Artxibo Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteko kideek (ALDEE) bisita egin dute Amasa-Villabonako Xenpelar Dokumentazio Zentrora. Erakunde desberdinetako ordezkariak izan dira bertan, artxibo, liburutegi eta dokumentazio zentroyen kudeaketaz arduratzen diren profesionalak.

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren egitasmo osoa taldean azaldu ondoren, dokumentazio gune desberdinak bisitatu dituzte: liburutegia, digitalizazio gunea, ikerketarako gunea, biltegia eta ikus-entzunezkoen txokoa, besteak beste.

Bertsoak berezko dituen ezaugarriak aintzat hartuta dokumentazioa bildu, antolatu eta zabaltzeko moduei buruz hitz egitearekin batera, bisitak elkarren berri izateko okasioa ere eman du. Xenpelar Dokumentazio Zentrokoen hitzetan, oso bisita "emankorra" izan da: "Askotariko ideiak, kanpo erreferentziak eta galdera berriak bildu ditugu, lanetan jarraitzeko akuilu izango ditugunak", adierazi dute. Aurrera begira ere elkarlanean jarraitzeko "gogotsu" daudela gaineratu dute.



ALDEEkoen bisitako talde argazkia. //XDZ



Puntu jarrita

MARIA ISABEL
ETXEBARRIA GARITAZELAIA

Gogoan daukat, Maialen, zuen asperdura. Santiagon, Bilboko Jaietan ezagututako emakume taldea lagun egin nuen zuek neska-mutil handi egin zinetenean. Egia esan, talde honetako emakumeok ekintza ugari egiten dugu, baina batez ere, herriz-herriz bertso saioak entzutera eta gozatzera joaten gara. Zuk galdetutakoa ere taldean erantzuten saiatuko gara, denon artean.

Bertsozale batek kontuan izan behar du beti **nora** joan behar den, herri ezaguna edo ezezaguna izan aldea dago eta. Ordua baino lehen joatea komeni da: aretoa non dagoen ikusi, kafea hartu, lagunekin eta bertaratzen diren ezagunekin hitz egin, kanpoko mahaitxoetan saltzen diren poltsa, euritako eta abaniko ikusi, eta behar bada, erosi. Baina garrantzitsuena, barruan leku egokia hartzea da (bestela, ez ikusi ez entzun).

Saioaren atsedendian, gure arteko kiniela egin eta kutxiaren bat jaten dugu. Bertsolariak kantuan dabilzan bitartean isiltasuna nagusi izan behar da, baina, eztaba egiteko gogoia badatorkigu, beti komeni da "Juanolaren bat" poltsan izatea.

Saioari buruzko gorabeherak etxerako bidaian aztertzen ditugu. Barre gustura egiten dugu elkarren komentarioak eta balorazioak entzuten!

Sarrerak erosi, garraioetaz informazioa lortu eta beste kontu txiki batzuk **auzolanean** egiten ditugu, gure artean lanak banatuz.

Guzti hau gure Bilboko "txokorik kutunena" bazterrean utzi gabe. Aste Nagusian Santiago Plazan batzen garenon artean, saioen antolaketan ibiltzen den Ainhoa Markinez egoten da, taldekideen aspaldiko laguna. Berari galdetzen dizkiogu bertsoen eta emanaldien inguruko zalantza guztiak.

Tarte hau aprobetxatuz ... Pasatu den Arabako Bertsolari Txapelketan, Ainhoa, agurrak puntuazioa eta emaitzak jakin baino lehen abesten izan dituzte, Araban ohikoa da ala egiteko modua aldatu egin da?

Koplak

Baxenabarre, Lapurdi eta Zuberoako bertso eskoletako izen ematea zabalik

2026-2027 ikasturterako bertso eskoletako izen ematea zabalik da jada. Irailaren 21ean hasiko dira eskolak, eta 32 bertso eskola desberdin eskainiko dira Baxenabarren, Lapurdin eta Zuberoan. Ordutegiak, irakasleen izenak eta harremanetarako bideak bertsozale.eus atarian daude, baita, izena emateko eman beharreko pausoak ere.

Poto-Finixa



Bizkaiko bertso eskoletako gazteak Ondarroan batu dira Bertso Barnetegian

Udako oporrak hartzarekin batera, Bertso Barnetegian elkartu dira Bizkaiko bertso eskoletako 60 gaztetik gora, Ondarroan. Ekainaren 22tik 25era egin dute egonaldia 2008-2013 urte bitarteko gazteak. Beroa protagonista izan bada ere, ohi bezala bertsoak ere leku handia hartu du lau egunetan; besteak beste, txapeldunen saioa izan dute: Aitor Etxebarriazarraga, Iñaki Viñaspre eta Maddi Ane Txoperena izan dira bertan kantuan. Bertso barnetegiaren helburu nagusia bertso eskoletako gazteen arteko harremanak sendotzea da.

